



2023

EGUTEGI FISKALA

Salbuespenak eta hobariak
Informa zaitez!



eskoriatza ko
udala



2023ko egutegi fiskala

Hona hemen, 2023ko egutegi fiskala, hau da, zorren aldizkako ordainketa muga barruan borondatez ordaintzeko epeak.

>> **Helbideratutako ordainagiriak** zuzenean kargatuko dira banketxe edo aurrezki kutxetako baimendutako kontuetan.

>> **Ordainagiria helbideratu gabe dutenei** zorra ordaintzeko agiria bidaliko zaie posta arruntez zordunen helbide fiskalera. Aipatutako agiria ez bada jasotzen, ordainketa egin nahi duenak agiri hori eskatu beharko du borondatez ordaintzeko epean udaletxeko H@AZI zerbitzuan.

>> **Ordaintzeko lekuak:** ordainketa banketxe laguntzaileen edozein bulegotan edo kutxazainetan egin ahal izango da: Kutxabank, Laboral Kutxa, Banco Santander eta Caja Rural de Navarra.

Internet bidez: Euskal administrazioaren ordainketa-pasabideak.

>> **Banku-helbideratzea:** ordainketa helbideratzeko azken eguna borondatez ordaintzeko epea hasten den aurreko hilabetearen 15a izango da; Ondasun Higieizinei buruzko Zergaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren kasuan izan ezik, horientzako azken eguna Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritakoa izango baita.

>> **Ordaintzeko epea igarota ordainketarik egin gabe,** zorrak premiamendu-bidez eskatuko dira eta dagozkion errekarguak eta berandutze interesak sortuko ditu exekuzio epean, eta, hala badagokio, egon daitezkeen kostuak ere ordaindu beharko dira.

Informazio gehiago:

- > H@ZI zerbitzuan
- > 943 71 44 07
- > h@zi@eskoriatzua.eus

KONTZEPTUA	ALDIA	BORONDATEZ ORDAINTZEKO EPEA	HELBIDERATUTA
IBILGAILUAK	2023	2023/03/29 2023/05/08	2023/05/08
HONDAKINAK	1. SEIHILABETEA	2023/03/29 2023/05/03	2023/05/03
PASABIDEAK	2023	2023/03/29 2023/05/03	2023/05/03
OHZ	2023	2023/05/31 2023/07/04	2023/07/04
MAHAIK ETA AULKIAK	2023	2023/06/02 2023/07/07	2023/07/07
HONDAKINAK	2. SEIHILABETEA	2023/09/08 2023/10/10	2023/10/10
TELEBANAKETA	2023	2023/10/31 2023/12/05	2023/12/05

Udal zergei aplikak dakizkiekeen salbuespenak eta hobariak

Taula honetan laburbilduta jasotzen dira hainbat kontzeptuengatik herritarrek Udalarri ordaindu beharreko zergei aplikak dakizkiekeen salbuespen, hobari eta errekaratuak. Hobariak jaso ahal izateko idatzizko eskaera eta dagozkion dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta ondorengo baldintzak bete:

A >> Udalarri ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B >> Pertsona fisikoek kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean.

Informazio gehiago:

> H@ZI zerbitzuan
> 943 71 44 07
> h@zi@eskoriatza.eus

OHZ
(Ondasun Higiezinaren gaineko zerga)
Hiri izaerakoak
> **Eskatzeko epea:**
2023-02-03ra arte.

% 50eko hobaria
"Etxebizitza hutsaren programarako" utzitako etxebizitzak.

% 15-50eko hobaria
Familia ugariak.

% 50eko hobaria
Energia berriztagarri sistemak instalatzea.
Baldintzak kontsultatu.

OHZ
(Ondasun Higiezinaren gaineko zerga)
Landa izaerakoak

12/1989 Foru Arauan ezarritako salbuespenak (www.gipuzkoa.net)

Hazkunde makaleko espeziez landatutako basoak.

Baso Administrazioak onetsitako antolamendu proiektuen menpeko baso birlanaketak. Salbuespenak 15 urtez iraungo du, eskabidea egin eta hurrengo zergalditik zenbatuta.

600 euro baino gutxiagoko oinarri ezargarria duten ondasunak.

IBILGAILUAK

> **Eskatzeko epea:**
2023-02-03ra arte.

% 50eko hobaria
Ibilgailu "historikoak": 30 urteko antzintasuna gutxienez.

% 100eko hobaria
50 urteko antzintasuna gutxienez.

% 75eko hobaria
5 urte matrikulatze datatik ibilgailu hibridoentzat.

% 15-50eko hobaria
Kide anitzeko familia.
Turismoentzat baliogarria.

% 95eko hobaria
Ibilgailu elektrikoak.

> Ibilgailuaren jabeak % 65 edo handiagoko minusbaliotasuna izatea.
> % 33 edo handiagoko eta % 65 baino gutxiagoko minusbaliotasuna mugikortasun urriarekin.
Ibilgailuak 14 HP baino gutxiagoko potentzia fiskala izan behar du (tarifa ≤ 03 tarifa).

14/1989 Foru Arauak ezarritako salbuespenak

Nekazaritza
ikuskaritzaren kartila duten traktore eta atoiak.

HONDAKINAK

% 25eko hobaria 11. tarifa (etxebizitzetako tarifa arrunta): autokonposta edo konpost komunitarioa egiteagatik.

EIOZ
(Obra zergak)

Beharrezkoa:
jakinarazitako behin-behineko kitapena ordainduta izatea.

Eskatzeko epea:
sei hilabetekoa izango da kitapena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Nekazaritza edo baso ustiategietara lotutako obrak lurzoru ez urbanizagarrian:
> Fatxadako erreforma eta erreteila.
> Baserria birgaitzea.
> Nekazaritzako edo basoko instalazioetan egindako birgaitzea edo obra berria.

> **Nekazaritza ustiategia:**
% 50eko hobaria
> **Lehentasunezko nekazaritza ustiategia:**
% 90eko hobaria

Obrak udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik, enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik...
% 90eko hobaria
% 95eko hobaria

Igogailu berriak jartzeko obrak.
Isolamendu termikoko obrak.
Baldintzak:
zerga ordenantza begiratu edo udaletxean galdetu.
% 90eko hobaria

Hirigune historikoko eraikinak birgaitzeko obrak.
> **Integratua: % 90eko hobaria**
> **Isolatua: % 50eko hobaria**
Eskatzeko epea: hiru hilabetekoa izango da Eusko Jaurlaritzak obra ziurtagiria ematen duen egunetik kontatzen hasita.

Mugikortasun urria duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko obrak.
% 90eko hobaria dagokion zatian

Fatxaden tratamenduko obrak batera egindakoan kale edo plaza batean.
% 90eko hobaria

Energia berriztagarrien aprobetxamendua daukaten eraikuntza eta instalazioak.
Baldintzak kontsultatu.
% 95eko hobaria

KIROLDEGIKO ABONUAK

Ikasleek, langabetuek, ezgaitasun bat duten pertsonak, 65 urte baino gehiagoko pertsonak, 80 urte baino gehiagoko pertsonak, kide anitzeko familiak.
Informazio gehiago, kiroldegian.

Jarduerak, hobariak eta salbuespenak

Edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A >> Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B >> Egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

Informazio gehiago:

> H@ZI zerbitzuan
> 943 71 44 07
> h@zi@eskoriatza.eus

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

% 5, 10 edo 20ko hobaria
Enplegua sortzeagatik.

JARDUERA TASA ETA ESPEDIENTEA TRAMITATZEAK DAUKAN TASA

Tasa honetarako hobariak eskatzeko epea jarduera baimena eskatzen denean hasiko da eta baimena ematen den egunetik hilabetera amaituko da.

% 100eko hobaria
Industria edo merkataritza jarduera BERRIA izan eta sustatzailea langabezia badago.

% 90eko hobaria
Egun martxan dagoen industria edo merkataritza jarduera izan eta sustatzailea langabezia badago.

% 75eko hobaria
Hiri lurzoruan industria edo merkataritza jarduera berria. Landa lurzoruan egun martxan dagoen jarduera edo jarduera berria.

OHZ (Ondasun Higiezinaren gaineko zerga) Landa izaerakoak

12/1989 Foru Arauan ezarritako salbuespenak (www.gipuzkoa.net)

Hazkunde makaleko espeziez landatutako basoak.

Baso Administrazioak onetsitako antolamendu proiektuen menpeko baso birlandaketak. Salbuespenak 15 urtez iraungo du, eskabidea egin eta hurrengo zergalditik zenbatuta.

600 euro baino gutxiagoko oinarri ezargarria duten ondasunak.

HONDAKINAK

Ikusi baliokidetasunak
Lur ez urbanizagarrian kokatutako jarduerak.

EIOZ (Obra zergak)

Beharrezkoa: jakinarazitako behin-behineko kitapena ordainduta izatea.

Eskatzeko epea:
sei hilabetekoa izango da kitapena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Nekazal edo baso ustiatzietara lotutako obrak lurzoru ez urbanizagarrian:

> Fatxadako erreforma eta erreteila.
> Baserria birgaitzea.
> Nekazaritzako edo basoko instalazioetan egindako birgaitzea edo obra berria.

> **Nekazaritza ustiatzea:**
% 50eko hobaria
> **Lehentasunezko nekazaritza ustiatzea:**
% 90eko hobaria

Obrak herri onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik, enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik...

% 95eko hobaria

Hiri lurzoruan industria edo merkataritza jarduera berria jartzeko lokala.

Landa lurzoruan egun martxan dagoen jarduera edo jarduera berria.

% 75eko hobaria

Egun martxan dagoen industria edo merkataritza jardueran lokala egokitzen duenari, langabezia badago.

% 90eko hobaria

Industria edo merkataritza jarduera berria jartzeko lokala egokitzen duenari, langabezia badago.

% 100eko hobaria